



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

Ordizian, **2018ko urriaren 10ean** UDALBATZARRAK ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

José Ignacio Iturrioz Gotor- EAJ/PNV

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

- Langileen Batzordeko ordezkariak etorri dira.

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

- 1.- 2018ko uztailearen 19an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
- 2.- 2018ko uztailearen 30ean egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 3.- Ekaineko, uztaileko eta abuztuko alkatetza dekretuen berri ematea.
- 4.- Kontu-hartzaileak irailako kontratuen gainean egindako ingerak.
- 5.- AGIJUPENSen adierazpena, nagusien aldaketatik Gipuzkoan eta Ordizian
- 6.-Ordiziako Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioa, Alzheimerren nazioarteko egunari buruzkoa.
- 2.- Udal langileen soldataren igoera 2018rako.
- 8.- 2019ko Ordenantza Fiskalen onarpena.
- 9.- SASIETAko Mankomunitateko Estatutuen Aldaketa
- 10.- 2019rako auto-taxien tarifak onartzea.
- 11.- "GARBIGUNE" 32 HIEren HJParen behin betiko onarpena.
- 12.- Zuberoka kalean dauden aparkalekuen Administrazio-emakidaren esleipenerako baldintzen Agiria.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA471D4>



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

- Maiza andreak egindako galderak udalaren plangintzari eta antolakuntzari lotutakoak.
- Ezenarro jaunaren informazio eskaera, Oianguren baserriari buruzkoa.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 21:25ean





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2018ko uztailaren 19ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2018ko uztailaren 19ko ohiko Osoko Batzarreko akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da egon.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- 2018ko uztailaren 30eko udalbatzarrak egindako aparteko batzarraren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2018ko uztailaren 30eko udalbatzarran egindako aparteko batzarraren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 9 (EAJ 4, Ordiziako E.H. Bildu 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)


Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 3 (Ordiziako E.H. Bildu 1, Ordizia Orain 2). Intsausti, Sukia eta Soto andrea ez ziren bilerara joan.

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



3.- Ekaina, uztaila eta abuztuko alkatetza dekretuen berri ematea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Sukia andreak alkatetzako zenbait dekreturi buruzko informazioa eskatu du (zerrendako 2. orrialdean zenbakitutakoak), Altamirako jaiei eta Santa Ana jaiei lotuta taberna eta establezimendu publikoak ixteko ordutegi bereziari buruzkoak. Ukitutako bizilagunei kontsulta egin zitzaizen galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Kontu-hartzaileak iraileko kontratuei egindako ingeren berri ematea.

Ordizian 2018ko irailaren 27an.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (09/2018):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Enpresaren izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera data	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2017an Gastatua
Gesmunpal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	48.557,78
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	43.560,24
Landarri S.L.	Hilerriaren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	34.901,11
Eulen Sociosanitarios	Etkez-etxeke laguntzaren zerbitzua	2010/12/24	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Tarifen arabera.	110.015,03
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barneo	76.450,50
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D´Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	103.993,41



INDOK	Munigex-en kudeaketa	Kontraturik gabe.	Urterokoa		2016ko prezioa: 12.196,80 euro BEZ barne	13.053,11
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa: 17.061 euro BEZ barne	20.757,46
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigrazio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	25.993,39

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa,

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epa eta kontratuen exekuzioa.”

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian,** kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa,** eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.


a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.



b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuari erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuako Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”


Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gairerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarrereren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPARO FAKTURAK

IRAILA


HORNITZAILEA	FACTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/09	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	290	5460,75
INDOK	1116	1960,2
LAIA, S.COOP.	18/36	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	010U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	91	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	92	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/285	1.872,15
GESMUNPAL, S.A.	2018/07	389,81
GESMUNPAL, S.A.	2018/287	1.627,70
GESMUNPAL, S.A.	2018/08	326,80
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3554925	7.307,98
ORDIZIA GARBIKETAK, S.L.	56	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800535	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800537	1604,34
LANDARRI, S.L.U.	1800538	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800539	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800542	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800560	401,07
	GUZTIRA	38.351,56

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea .- Miguel Zubizarreta Elicegui



2018/0826. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko abuztuaren 29an egindako 08/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek inplazatu behar duten zerbitzuak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

ERREPAROIA: FAKTURAK

Facturas Reparación

ABUZTUA


Agosto

HORNITZAILEA Proveedor	FAKTURA ZKIA Nº Factura	ZENBATEKOA Importe
EULEN SERV. SOCIOSAN. S.A.	3550352	6.580,86
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	44	286,48
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	50	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800388	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800423	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800424	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800456	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800477	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800478	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800493	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800494	125,01
	GUZTIRA	8.892,41

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. * Notifíquese el presente Decreto al interesado.

ALKATEAK / EL ALCALDE,

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA471D4>



2018/0919. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2018ko irailaren 27an egindako 09/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin plenguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

ERREPAROA: FAKTURAK

Facturas Reparó

IRAILA

Septiembre

HORNITZAILEA Proveedor	FAKTURA ZKIA Nº Factura	ZENBATEKOA Importe
J.M. GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/09	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	290	5.460,75
INDOK	1116	1.960,20
LAIA, S.COOP.	18/36	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	01OU/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	91	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	92	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/285	1.872,15
GESMUNPAL, S.A.	2018/07	389,81
GESMUNPAL, S.A.	2018/287	1.627,70
GESMUNPAL, S.A.	2018/08	326,80
EULEN SERV. SOCIOSAN., S.A.	3554925	7.307,98
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	56	286,48



LANDARRI, S.L.U.	1800535	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800537	1.604,34
LANDARRI, S.L.U.	1800538	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800539	125,01
LANDARRI, S.L.U.	1800542	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800560	401,07
	GUZTIRA	38.351,56

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. * Notifiquese el presente Decreto al interesado.
ALKATEAK / EL ALCALDE,

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jaunak jakinarazi du zerrendan badaudela laster lizitatuko diren 2 edo 3 kontratu eta laster erregularizatuko dira.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- AGIJUPENS-en adierazpena pertsona nagusien gira dela ta Gipuzkoan eta Ordiziako herrian.

Proposamena

Iraila eta urria hilabeteetan, Gipuzkoako udal guztietan, nagusien balioaz eta gure eskubideen defentsaren garrantziaz sentiberatasunezko kanpaina bat bultzatzen ari gara.

1. Ikuspegi orokorra


1.1. Jendetza

Zorionez urte gehiagotan bizi izateko itxaropena bizi-kalitatearekin elkartuta doa. Zahartze aktiboa sustatu nahi dugu. Gainera, pertsona zaharren ahalduzkoak, aldi bakoitzean gehiagotara joan behar du, eta paper parte-hartzailea, nabarmenagoa eta adierazgarrigoa izan beharko luke bai prozesu publikoetan eta baita udalaren bizitza politikoan.

1.2. Pentsioen jasangarritasuna

Garrantzitsua da pentsio duineko pertsona nagusiek eros-ahalmena galtzen ez duten sistema publiko bermatzea. Horregatik, garrantzitsua da KPIa lotuz egon dadila pentsio igoera eta hau egonkortua izan dadila eta ez dadila egon alderdi politikoen eta gobernu itunen menpe. Era berean, jasangarritasun faktorearen indargabetzea eskatzen dugu.

Zahartzaroan zehar emakumeen zaugarritasun ekonomiko eta sozialak arduratzen gaitu, bai lan bizitzan dagoen soldata desberdintasuna pentsioetara ere eramatea, eta batez ere, alarguntza pentsioen estaldura sistema kolokan jartzen dugunean.



Era berean, salatzen dugu IRTP delakoa, Norberaren Lanaren etekinari jarritako zerga, nolaz gure langile bizitzan Kotizazio Legearen babesean egindako mozkina eta murriztapena dela-ta, gaurko gure pentsioei ezin zaiela hori ezarri, lehen ordaindua baitugu, eta orain bir-ordaintzea ez baita zuzena, horregatik horren berehalako itzultzea eskatzen dugu eta zerga horren baliogabetzea.

2. Gure Udalari eskaerak.

- 2.1. Erretirodunen Zentro/Gunekiko harreman instituzional hobea bultzatzea.
- 2.2. Gure Zentro/guneen jasagarritasun ekonomikoa bermatzea.
- 2.3. Pentsio duin eta zuzenago baten aldeko gure eskabidea babestea.
- 2.4. Mota guztien hesiak ezabatzea eta etxebizitza-erakuntza eta pertsona guztien hiri-espazioa ahalbideratzea eta hori erraztuz eta pertsona guztien elkar-lotura bultzatuko duena.
- 2.5. Eskatzen dugu Udalak "Euskadi-Lagunkoia" proiektuarekin bat egin dezala, hiri eta pertsona nagusiekiko herri adiskidetsua izan dadin, hiri-altzarien mantenua, espazio berdeko gozamina egiaztatuz, garbiketa eta segurtasuna zainduz eta irisgarritasuna hobetuz.
- 2.6. Herri mailako Pertsona Nagusien Kontseiluak bultzatzea, eta erakunde honetako pertsona batek zuzendua izan dadin.
- 2.7. Bizitza guztirako izan behar duen heziketa aktiboa bultzatzea. Eremu honetarako inbertsioa biziagotu beharko litzake.
- 2.8. Domotikaren aldeko apustua egitea bai Jubilatuen Elkarteetan eta baita pertsona nagusien etxebizitzetan, bizitza errezago eta duinago bat izan dezaten..
- 2.9. Aldarrikatzen dugu ez desiratutako bakardadeari eta isolamenduari amaiera ematea, zeren bere osasun fisikoa eta burukoa ahuldu dezaketelako.

3. Azkeneko hitzak.

- 3.1. Bere aurrekontu egokiarekin Pertsona Nagusien zinegotzitza eskatzen dugu, herritar osoak, eskubideekin eta betebeharrekin izaten jarraitzen dugunez gero.
- 3.2. Uste dugu "zaharkeriaren" fenomenoak, adinean oinarritutako diskriminazioak baduela bere eragina, eta bizitza arruntean bezala bizitza administratiboan konpontzen joan behar duela. Eskatzen ditugu hurbiltasun gehiago eta urruntze gutxiago, zuzeneko erlazio gehiago eta burokrasia gutxiago.
- 3.3. Nahiko genuke udalbatza osoan eskutitz hau aztertzea eta ahal bada onartzea, pertsona nagusiaren balioztapena eta aintzatespena aitortuz eta partaidetza bideratuz.
- 3.4. Badakizu non gauden, eta nahiko genuke zurekin harreman zuzena izatea. Gustatuko litzauguke bilera bat zurekin izatea. Horregatik lehenbailehen jaso ahal gaitzala erregutuko genizuke.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaldu du elkarteak udalugaritan eskatu duela Gipuzkoan eta baitan Ordizian ere nagusiek duten egoerari buruzko adierazpena osoko bilkuretan eztabaidatzeko.

Esan du adierazpenak adinekoei buruzko zenbait gai ukitzen dituela eta zerrendatu egiten dituela.

Adierazi du zenbait eremutan Ordiziako adinekoen egoera beste udalherri batzuetakoena baino hobea dela.

Baina Udalak ahalik eta sustapen-lan handiena egingo du zerbitzuak hobetzeko.

Sukia andereak adierazi du "3.1. zenbakidun puntuak "bukaerako hitzak" puntuak bere aurrekontua duen Nagusien Zinegotzigoa sortzea eskatzen duela. _ Ez du oso ondo ulertzen zein izango litzatekeen bere xedea.



Dubreuil jaunak adierazi du Ordizian -Aholku Batzorde bat dagoela eta horregatik, gure kasuan, berak ez duela beharrezko ikusten. Kontuan izan behar da aurrekontu garrantzitsua bideratzen dela ZUHAIZTIra, NAGUSILANera... etab.

Etxez etxeko laguntzari dagozkion orduak eta eguneko arreta zerbitzuari dagozkion orduak, haziz doazenek, erakusten dute nagusien inguruko gaiari arreta eskaintzen zaiela.

Horrez gain esan du adierazpenean azaltzen diren eskaera asko dagoeneko Ordizian eskaintzen direla, baina egia da hobetu daitezkeela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EAJ-PNV 4, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Ordiziako Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioa Alzheimerren nazioarteko egunaren ospakizunari buruzkoa.

Proposamena

Iñaki Dubreuil Churruca, Ordiziako udaleko Alderdi Sozialistako bozeramaileak, ALZHEIMERRAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN (IRAILAK 21) OSPAKIZUNARI BURUZKO MOZIO PROPOSAMEN HAU aurkezten du HAUSNARKETARAKO, EZTABAIDARAKO ETA OSTEAN, OSOKO BILKURAN ONARTZEKO.

Munduan gaixotasun hau pairatzen duten 25 milioi pertsona inguru daudela kalkulatu da. AEBn seigarren heriotza eragilea da, laugarrena adinekoen artean. Europan dementziaren eragina 6,9a da 1000 gizoneko eta 13,1a 1000 emakumeko. Espainia dementziaren prebalentzia gehien duen munduko hirugarren herrialdeztat jotzen da: 60 urtetik gorako espainiarren % 6,3. 2013an hilkortasun-tasa gordina 837,9 hildako 100.000 biztanleko izan zen. Hildako guztietatik 16.305 pertsona dementziarekin erlazionatutako arrazoiengatik hil ziren eta 12.775 Alzheimerrengatik. Alzheimerrengatik hil zirenetatik, 3.843 gizon eta 932 emakume izan ziren, hots, Alzheimerrengatik hil zirenen artean, hamarretik zazpi emakumeak dira. Ezberdintasun horiek emakumeen biziraupena handiagoa delako da, adineko pertsonak izateraino.

Nahiz eta Alzheimerrengatik ez den zahartzearekin lotutako gaixotasun bat, egia da gaixotasuna pairatzen duten guztiak 65 urtetik gorakoak direla eta gazteagoen artean oso gaitz bakana dela. Dementziaren maiztasuna bost urterik behin bikoiztu egiten da 65 urtetik aurrera eta 85 urtetik gorako pazienteen % 30 baino gehiagok dementzia duela kalkulatu da, gehienek Alzheimer motakoa. Urtero 100.000 kasu berri agertzen direla ikusirik eta biztanleriaren zahartzea eta etorkizunean 80 urtetik gorako pertsonen areagotzea kontuan hartuz, 2020an gaixoen zenbatekoa bikoiztea eta 2050ean hirukoiztea aurreikusten da.

Hori horrela izanik, ez dago zalantzarik nazioarteko osasun publikoarentzat erronkarik garrantzitsuenetako baten aurrean gaudela gaur egun, eta baita etorkizunari begira ere.



Beste alde batetik, eta 2017an egin zen “Alzheimer gaixotasunaren eta beste Dementia batzuen ondorioak familiako zaintzaileengan” ikerketa sozialeko proiektuaren arabera (proiektua Alzheimerren Espainiako Konfederazioak egin zuen Cinfa-ren laguntzarekin eta Alzheimerren Espainiako Konfederazioko kide diren erakundeen parte hartzearekin), Alzheimerrek ez du gaixoarengan bakarrik eragiten, familiako zaintzailearengan ere eragiten du. Modu batera edo bestera, eragin egiten du eta zaintzaren lanarekin zuzenean erlazionatutako gabeziak edo sintomak izaten ditu.

Gaixotasun honek suposatzen duen erronkaz jabetuz, etorkizunean benetako “izurria” izatera hel daitekeena, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Alzheimerren duten familien elkarte amerikarrak (Alzheimer’s Disease International) irailaren 21a izendatu zuten “Alzheimer gaixotasunaren Nazioarteko Eguna”.

Hain zuzen ere, ostiral honetan, hilaren 21ean, 2018ko Alzheimerren Nazioarteko Egunagatik, Alzheimerren eta beste Dementia batzuk dituzten Pertsonen Senideen Elkartearen Espainiako Konfederazioak (CEAFA) edizio honen goiburua aurkeztu berri du: “Alzheimer ConCiencia Social”

Haien aldarrikapenen artean, Cheles Cantabrana CEAFAko lehendakariak, plan horren onarpena nabarmendu du, hain zuzen ere, gaixotasun hau jasaten duten 800.000 inguru gaixok “eskatu eta merezi” dutena.


Era berean, eta gure lurraldera etorri, Gizarte Zerbitzuetako Ahalduna Maite Peñak eta AFAGIko Lehendakaria Koldo Aulestiak, hilaren 13an, komunikabideen aurrean aurkeztu zuten Alzheimerren Nazioarteko Egunaren 2018ko Kanpaina, “Alzheimer ConCiencia social” goiburupean. Horrekin, ezinbestean egon behar duen kontzientzia aldarrikatu nahi da, Alzheimerren bere osotasunean behar bezala ekiteko. Gaixotasun hori, gaur egun, Gipuzkoan 12.000 pertsonen pairatzen dute.

HORREGATIK GUZTIAGATIK,

- Kontuan harturik, Alzheimerren, gaur egun, gehien zabalduetako gaixotasunetako bat dela eta munduan demenzia duten 46 milioitik gorako pertsona daudela (gaixoak eta familia),
- Jabeturik, Alzheimerren jendarte eta osasun izaerako arazo bat dela eta ekiteko esparrurik nagusia familia dela.
- Jakinda oraindik ez dagoela tratamendu eraginkorrik, ezta prebentzio egokirik ere, gaixotasunaren ondorioak arintzeko.
- Jakinda gaixotasunaren nagusitasuna datozen hogeitun urteotan bikoiztu egingo dela, batez ere, herritarren bizi-itxaropena handitu delako.
- Jakinda Alzheimerrek, senideen artean, sortzen dituen zeharkako eta zuzeneko gastuak urteko 30.000 euro direla.
- Jakinda gaixotasuna pairatzen duten pertsonen eta familien beharrei aurre egiteko dauden jendarte eta osasun baliabideen langile kopurua urria dela.
- Jakinda, nahiz eta Europako Legebiltzarretik, Europako Batzordetik eta berriki, Espainiako Osasunaren Mundu Erakundetik gomendioak egin dituzten, ez dagoela plan zehatzik gaixotasunaren ondorioak arintzeko.
- Jakinda gure senideen artean gaixotasunaren eragina nabarmena izatera iritsi daitekeela, batasunak indarra eragiten duela eta gaixotasun honen errealitatea ezagutzeko garrantzitsua dela.
- Jakinda tokiko biztanleria zahartzen ari dela eta horrek arrisku handiak sor ditzakeela demenzia bat (batez ere, Alzheimer motakoa) pairatzerako edo izaterako orduan.

ORDIZIAKO UDALAK MOZIO honen bitartez, agerian geratzea nahi du

Bere kezka lehen mailako arazo honekiko, “Alzheimerren Erakunde Solidarioa” deklaratzeko. Modu horretan, keinu instituzional horrekin, eta irailaren 21eko Alzheimerren Nazioarteko Egunaren ospakizunagatik, lehen mailako jendarte eta osasun arazo honi buruz, ohi bezala Udalak



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

pausu bat aurrera eman nahi du ordiziarren sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren atxikimenduan.

Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonen senideen Elkarteen Espainiako Konfederazioak (CEAFA) lideratutako ekimena ere babestu nahi dugu. Ekimen horretan Alzheimerraren Estatu-politika bat abian jartzea aldarrikatzen da eta helburu horretarako egindako Nazio-plana laster errealitatea izatea espero dugu.

Halaber, Ordiziako Udalak AFAGI Elkarteari bere babesa ematen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, elkarteak Zuhazti gizarte-etxean dagoen bulegoan kudeatzen eta eskaintzen duen "Alzheimerraren gaineko informazioa, babesa eta aholkularitza programa" mantenduz.

Orobat, Udalak bere eskumenen eta aurrekontu ahalmenen arabera laguntzeko konpromisoa hartzen du, gaixoei, haien familiei eta zaintzaileei zuzenduriko planak, programak, proiektuak eta ekintzak babesteko, baita gaixotasunaren eta ikerketaren gaineko sentsibilizazioan ere.

Ordizian, 2018ko irailaren hamazazpian.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak esan du hasieran idatzi bat bidali zuela Bozeramaileen Batzordean aztertzeko, gero kendu egin zuela eta ondoren testu berri honekin ordezkatu zuela beste hura osoko bilkuran eztabaidatzeko. Horregatik atzeratu da Nazioarteko Egunezik.

Mozioaren 4 puntu xedatzaileak irakurri ditu.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Udal langileen soldataren igoera 2018rako.

Proposamena

2018ko uztailaren 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartu ziren eta sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokion Kapituluari, 18. artikuluko 2. atalean, langile publikoen eta sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen soldataren igoera arautzen da.

Hortaz, 2018rako eta urtarilaren 1eko eraginarekin, % 1,5eko gehieneko igoera aurreikusten da 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, homogeneotasunaren arabera konparazioaren bi epeetarako.



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

Aurrekoaz gain, % 25 gehituko da, 2018ko uztailaren 1eko eraginarekin BPGa % 3,1era heltzen bada edo gainditzen badu, lortu den balioa.

Azkenik, % 0,2ko igoera osagarri bat baimendu daiteke, soldata-masaren % 0,3 (Ordiziaren kasuan, 2017an aurrekontu-superabita edukitzeagatik), beste neurri batzuen artean, produktibitatea edo efikazia hobetzeko planak ezartzeko edo parekatu daitezkeen funtzioak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berrikusteko, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planei ekarpenak egiteko.

2018ko urriaren 3ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Onartzea % 1,5eko soldata igoera bat 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2018ko irailaren 1eko eraginarekin, udal langile publikoentzat.

2.- Onartzea % 0,25eko soldata igoera bat 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, 2018ko uztailaren 1eko eraginarekin.

3.- Soldata-masari dagokion % 0,30 gordetzea 18. artikuluan, bigarren atalean, 5. paragrafoan ezarrita dagoen igoera egikaritzeko, hartu beharreko neurriak zehazten direnean.

4.- Akordio honetan adosten diren neurriak udal langileei, Herri Antzokiko Erakunde Autonomoko langileei, Majori Kiroldegia S.L. Sozietateko eta San Jose Egoitzako Erakunde Autonomoko langileei, urtarrilak 1etik maiatzak 31arte, aplikatuko zaizkie, KABIAK Egoitzako langileak maiatzan subrogatu zituenez.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia andereak esan du bilkuran Langile Batzordeko kideak daudela eta agian hitza eman behar zaiela osoko bilkurari zuzentzen zaion idatzian, soldata igoerari buruzkoan eskatzen dutena azaltzeko.

Alkate jaunak esan du berak alde aurretik Langile Batzordeko kide batzuekin hartu zuen akordioa azaldu nahi duela, legeak aurrean aplikatzen uzten duen gehienezko igoera aplikatzean datza akordioa.

Idatziaren berri gaur goizean izan duela esan du eta horren aurrean berak proposatzen du onartu nahi den legezko igoeraren eta Langile Batzordeak eskatzen duen 2018rako KPlaren igoera gehi 1,15aren arteko aldea kalkulatzeko eta soberakinaren likidazioarekin funtsa sortzeko.

Insausti jaunak esan du egiazki hasieran legez baimendutako soldata igoera onartzea erabaki zela. Nolanahi ere, esan du 2015 urtean 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetarako akordioa lortu zela eta 2018 urte honetarako igoera KPlarena gehi 1,15ekoa izango zela pentsatzen zuela, guztira ehuneko 2,75ekoa, eta Batzordeak eskatzen duena da igoera hori ahalbidetzeko formula juridikoak bila daitezela.

Besterik gabe idatzi batean adierazi eta gogoratu dute formula bilatu behar dela funtsa hor dagoelako, denbora aurrera doalako eta igoera ez delako oraindik gauzatu.

Alkate jaunak proposamenari bosgarren puntua gehitzeko proposamena egin du, soberakinaren kontura funts batean diferentzia gordetzeko.

Dubreuil jaunak esan du gaia lehenbailehen konpondu behar dela.



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

Eguren jaunak adierazi du akordioa 2015ean sinatu zela eta denbora asko igaro dela. Esan du lehenago ere legez ezarritakoak baino soldata-igoera handiagoak izan direla eta ez dela ezer gertatu.

Ordenantza fiskaletan KPIaren igoera proposatzen da, eta aldiz, langileen soldata igoera onartzean KPIaren igoera ez aplikatzeko lege arloko oztopoak daudela esaten denean harritu egiten da.

Osoko bilkuran onartzeko akordioa aurkezten den guztietan arazoak izaten dira.

Langileen ordezkarien esku utziko dute ea Alkate jaunak proposatutako akordioak balio dien edo ez, baina bera igoera burutzearen alde dago.

Sukia andereak esan du soldata igotzeko formulak badaudela. Beste udalerrri batzuek aplikatu dituzte dagoeneko. Eguren jaunaren antzera, horri buruz Langile Batzordeak hartzen duen erabakia errespetatuko du, baina bera igoera aplikatzearen aldekoa da.

Dubreuil jaunak berak ere uste du egoera gehiegi luzatzen ari dela.

Sukia andereak esan du kontratu irregularrei buruz Kontu-hartzaileak egindako Ingeran ere jasotzen dela ez datozela bat legeak ezarritakoarekin baina alkatetza dekretu bidez emandako zerbitzuen ordainketa agintzen da.

Kontu-hartzaile jaunak jakinarazi du akordioen legezotasuna Idazkariari eta Kontu-hartzaileari dagokien gaia dela. Gehitu du esanez legez baimendutako gehieneko kopurua baino goragoko igoera onartzen bada berak ingera bat egingo duela. Gainera, erabat deuseza izan daiteke akordioa indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren aurkakoa izateagatik.

Diferentzia ehuneko 1,125 izango litzateke.

Sukia andereak proposatu du Langile Batzordeak egindako eskaera akordio proposamenaren emendakin gisa sartzea eta bozkatzea.

Bozketa

EMENDAKINA

Langile Batzordeak aurkeztutako proposamena, 2018rako langile publikoen soldata igoeraren ingurukoa.

2018ko urriaren 10eko osoko bilkuran proposatzen den soldata igoeraren aurrean, honako hau proposatzen da:

Ez dira islatzen erosketak ahalmena berreskuratzeko eta 2016, 17, 18 eta 2019 urterako KPIa+1,15eko igoera jasotzen duten akordioak, alderdi politiko guztiek Langile Batzordearekin berretsitakoak; hori dela eta akordio hau kontuan izateko proposamena egiten dugu eta soldata igoera %2,75ekoa izateko.


Bozketa

GOBERNU TALDEAK OSOKO BILKURARI EGINDAKO PROPOSAMENA

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 0



LANGILE BATZORDEAK AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
Kontrako botoak: 4 (EAJ/PNV)
Abstentzioa: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Kontu-Hartzaileak hitzez egin du ingera eta idatziz ere egingo duela esan du, onartu den igoera ez delako legezkoa.

Gehiengoz onartu da EH-BILDUK eta O.ORAINek aurkeztutako emendakina, Langile Batzordeak eskatutako moduan.

Horrela bada, proposamena jarraian dagoen moduan jasota geratzen da:

Langile Batzordeak aurkeztutako proposamena, 2018rako langile publikoen soldata igoeraren ingurukoa.

Proposamena

2018ko urriaren 10eko osoko bilkuran proposatzen den soldata igoeraren aurrean, honako hau proposatzen da:

Ez dira islatzen erosketa ahalmena berreskuratzeko eta 2016, 17, 18 eta 2019 urterako KPIa+1,15eko igoera jasotzen duten akordioak, alderdi politiko guztiek Langile Batzordearekin berretsitakoak; hori dela eta akordio hau kontuan izateko proposamena egiten dugu eta soldata igoera %2,75ekoa izateko.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- 2019rako Ordenantza Fiskalen onarpena.

Proposamena

ORDENANTZA FISKALAK

Alkate jaunak aurkeztu du 2019rako udal tasa eta zergei buruzko proposamena. Gaiaz eztabaidatu eta gero, honako hau erabakitzea proposatu zuen, beti ere 11/1989 Foru Arauak (uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Herri- Ogasunak arautzen dituen), ezarritakoa betetzen aldera

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Honako hau onartu behin-behinekoz izaerarekin 2019ko ekitaldian aplikatzeko.

A) 1. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

B) 2. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

C) 3.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

D) 4. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.



E) 5. ORDENANZA FISKALA ALDATZEA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

F) 6.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO EKINTZAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA..

G) 7.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ERABILERA PRIBATIBOKO EDO HERRIKO JABETZA PUBLIKOA MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

H) 8. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, HAUR ESKOLAREN UDAL ZERBITZUEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUENA.

2.- Ordenantza jendaurrera jarri Iragarki-Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 30 egunetan, eta Korporazioak erabakiko dituen erreklamazio eta iradokizunetarako interesa dutenei aukera eman. Erreklamaziorik ez balego, behin betirako onartutzat joko da Ordenantza, erabaki gehiago beharrik gabe.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Esan du Osoko bilkurarako Gaien Batzordean ordenantzen irizpenak egin zirela eta EHBilduk eta Ordizia Orainek aldaketak proposatu zituztela.

Sukia andreak

Idatziz aurkeztu ditu aldaketa horiek .

Proposatzen duten KPlaren igoera %1,10ekoa da, baina urte naturalari egokitzen zaion KPlarena, eta ez 2017ko abuztutik 2018ko abuztura doan epeari dagokiona.

Jarraian ordenantzen Eranskin guztietarako aldaketak proposatu ditu, zerga eta tasa guztietarako.

Kontu-hartzaile jauna

KPlari dagokionez, erantzun dio esanez beti aplikatu dela modu horretan, abuztutik abuztura.

Ezenarro jaunak

Esan du ordenantza batzuen erregulazioan logikarik ez duten eta bat ez datozen suposizioak sortzen direla.

Bere ustez zerga eta tasa guztien ganorazko azterketa bat egin behar da. Esan du KPlaren igoeraren alde bozkatuko dutela eta zaborren tasan %10eko igoeraren alde.

Alkate jaunak

Esan du, lehendabizi, proposatutako KPlaren igoera bozkatzea egokitzen dela.



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

KPlaren %2,3ko igoera orokorra eta zaborren tasan %10eko igoera.

Bozketa

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)
Abstentzioa: 0

ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Sukia andreak

Esan du familia ugariei zerga-hobaria aplikatzearen alde dagoela, baina ez 80.000 €tik gorako errentak dituzten familiei. Urteko 60.000 eurora arteko errentak dituztenentzako hobariak proposatzen dituzte.

Bozketa

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 5 (EAJ-PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Etxebizitza hutsei %50eko errekarua aplikatzeari dagokionez, proposamena errekarua hori kentzea da.

Bozketa

Aldeko botoak: 5 (EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE) 1)
Kontrako botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
Abstentzioa: 0

Beraz, etxebizitza hutsei %50eko errekarua aplikatzea mantentzen da.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Sukia andreak proposatu du 25 urtetik gorako ibilgailuei hobaria kentzea. Nolanahi ere, historikotzat hartzen diren ibilgailuei hobaria aplikatzeko proposamena egiten du.

Aranburu jaunak

Ibilgailu historikoak luxuzko artikuluak direla uste du. 25 urtetik gorako ibilgailuei eta historikoei ere hobaria kentzea proposatzen du.

Soto andreak

“Ibilgailu historiko” bat zer den zehaztu beharko litzatekeela uste du.

25 urtetik gorako ibilgailuei eta historikoei ere hobaria kentzea bozkatu da.

Bozketa

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0



Ordiziako Udala

2018IOSB0010

Ezenarro jaunak esan du erabili beharreko termino edo hitza desgaitasuna dela, eta ez minusbaliotasuna.

Kontu-hartzaile jauna

Salbuespenari dagokionez, esan du desgaitasun terminoak minusbaliotasun terminoa ordezkatzeko duela eta gainera desgaitasunari erreferentzia egiten dion Foru Arauko testua osorik jasoko dela.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.

Kontu-hartzaile jauna

8.4. artikuluan, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako irisgarritasun edo bizigarritasun obrak egiteko %90eko hobaria aplikatzeari dagokionez, gaur egungo testua aldatu eta jarraian dagoen moduan idazteko proposamena egin du: “ Desgaituen irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazteko egiten diren obretan, instalazioetan eta eraikuntzetan %90eko hobaria ezarriko da. “

Bozketa

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ezenarro jaunak

EIOZen portzentaia KPIarekin batera ez igotzeko proposamena egin du, obren aurrekontuek ere KPIaren ioerak badituztela uste baitu. Bi aldiz zergapetuko litzateke.

Berak %3ko tasa proposatzen du proposamenean %3,12ko tasarekin azaltzen direnentzako eta %4koa proposamenean %4,21eko tasarekin azaltzen direnentzako. Hau da, borobiltzea.

Bozketa

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

BOE ERAIKINAK

Sukia andereak esan du ados dagoela kopurua biribiltzearekin baina %3ko gutxieneko tasa alokairu bidezko etxebizitzan eraikuntzarako soilik bada eta ez jabetzakoentzat.

Saltzeko BOEko etxebizitzari gehienezko tasa aplikatu behar litzateke, izan ere, hauen salmenta prezioak etxebizitza libreen prezioetara gerturatzen ari dira.

Alkate jaunak


Bere ustez irizpide bera izan behar litzateke BOE gutzientzako, erregimena edozein izanda ere.

Dubreuil jauna

Ez du inongo arazorik alokairuko etxebizitzan tasa gutxienean jaisteko, baina Etxebidek kudeatzen badu.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA471D4>

20



Bozketa egin da, %3ko tasa soilik alokairuzko BOEko etxebizitzaren eraikuntzari aplikatzeko baina ez salmentazkoei.

Bozketa

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (EAJ-PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

GAINBALIOA

Bozkatu beharreko proposamena da KPIaren igoera soilik karga-tasari aplikatzea.

Bozketa

